

## KLAUSULA-EREDUA



### BETEBEHARRAK

Pertsona edo entitate onuradunak diru-laguntza emateko arrazoi den jarduera egin eta jokaera hartzeko nahitaezko betebeharra du. Horrenbestez, eta zeharkakotasunaren printzipioari jarraiki, oinarri arautzaileetan edo dagokion deialdian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko betebeharrak hauek –edo antzeko beste batzuk– sar daitezke:

- 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoan, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta generorolen eta -identitateen aniztasuna.
- 250 langiletik gorako enpresek egiaztatu egin beharko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana diseinatu eta benetan aplikatu dutela, 3/2007 Legean, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritakoari jarraiki.
- Enpresa edo entitate onuradunaren plantillarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuko dela bermatuko da, honako hauekin lotutako politiketan: prestakuntza, langileen hautaketa, sailkapen edo kategoria profesionalak, arreta, mailaz igotzea, soldatak, egonkortasuna edo lanean jarraitzea, ordezkaritza, lan-segurtasuna eta -osasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua.
- Lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurri espezifikoak ezarriko direla bermatuko da.
- Diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak genero-ikuspegia aintzat hartu beharko du, diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Halaber, amaierako memorian, generoaren eraginari buruzko ebaluazioa sartu behar da, pertsona onuradunei buruzko datuak eta adierazleak sexuka bereizita, eta aplikatutako berdintasun-neurrien eragina azalduta.
- Jardueraren pertsona onuradunen %40k, gutxienez, emakumeak izan behar dute.
- Jardueraren edo proiektuaren prestazioa emateko lanerako kontratatutako pertsonetatik %40k, gutxienez, emakumeak izan behar dute.
- Entitate edo enpresa onuraduneko lanpostu kualifikatuen, ardurazkoen edo gerentziazkoen %40 emakumeek bete behar dituzte, gutxienez.
- Jardueraren edo proiektuaren prestazioa emateko lanerako kontratatutako pertsonetatik, gutxienez %15 laneratzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeak izango dira; esaterako, emakumeen aurkako indarkeria nozitu dutenak, guraso bakarreko familiaburu direnak, desgaitasunik duten pertsonak edo iraupen luzeko langabetuak.

Betebeharrak (genero-ikuspegiarekin lotutakoak barne) txertatzeko lege-oinarriak hauek dira: 4/2005 Legearen, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoaren, 20.3. artikulua; 38/2003 diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14., 32., 37., 56. eta 57. artikulua; 1/1997 Legegintza Dekretuaren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenaren, 50.2. artikulua; 3/2007 Foru Arauaren, martxoaren 27koaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoaren, 13.1. artikulua; 5/2005 Foru Arauaren, maiatzaren 31koaren, Foru Administrazioak (Bizkaia) ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duenaren, 13.1. artikulua; eta 3/1997 Foru Arauaren, otsailaren 7koaren, Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzei eta transferentziei buruzkoaren, 5.2. artikulua.

